

Nork: [Mailo Oiarzabal](#) - Ira 6, 2017

SAGARRONDOAK BETE-BETE, UZTA BILTZEKO UNEAREN ZAIN

Sagar urtea izango da aurten, zuhaitzen kargak hala adierazten du behintzat. Uzta aurretatuta dator eta sagardotarako aleak jasotzen hasiak dira toki batzuetan. Errezil sagarrari, ordea, hilabete inguru falta zaio.



Sagarrondoa, alez gainezka. Horrela datoz gehienak aurten inguruan. (Nerea Otaegi)

Udazkena badator eta harekin batera, besteak beste, sagar uzta biltzeko sasoa ere etorriko da. Edo etorri da, toki batzuetan fruitua jasotzen hasita ere badaudelako, Joxe Ramon Agirre (Errezil, 1964) Errezil Sagarraren Elkarteak kideak dioenez. "Itxura denez, sagardo sagarraren bilketa hasi dute batzuek dagoeneko, aurten goiz datorrelako", azaldu du. Ohi baino goizago heldu dira aurten sagarrak, eta hori da uztaren ezaugarrietako bat. Sagarrondoa goiz loretu zirela dio Agirrek, "ohi baino hamabost-hogei egun lehenago bai. Pentsatzen dut horrek eragingo zuela; eta, gero, posible da baita eguraldiagatik eta abar ere izatea. Lehor joan da, azkenaldian euri pixka bat ere egin duen arren".

2017ko sagar uztaren beste ezaugarria, nabarmenena agian, ugaritasuna da. Sagar urtea da aurtengoa, iazkoa ez bezala. Hala dio Agirrek: "Lehenago urtean batzuek dezente izan zuten, baina orokorrean gutxi. Baina, aurten, auzo eta bailara guztietan ikusten da ia denean dagoela sagar asko".

Errezil sagarra, urrian

Agirrek eta berak bezala Errezil edo Ibarbi sagarra ekoizten dutenak, ordea, ez dira hasi oraindik sagar bilketan.

Uzta aurreratuta datorrela kontuan izanda agian zertxobait lehenago izango badute ere, urri erdialdea izaten da Errezil sagarra biltzeko garaia. "Batzuk agian lehenxeago, astebate bat edo, baina normalean Pilarika aldean izaten da", zehaztu du ekoizle errezildarrak. "Errezil sagarra sagardotarako ere oso preziatua da, baina beranduagoko sagarra da. Eta sagardo sagarren barruan badaude barietate batzuk beranduxeago etortzen direnak, baina normalean Ibarbi baino lehenago etortzen dira", gaineratu du.

Ekoizpena indartzen

Dena den, Agirrek dio Errezilen Errezil sagarra ekoizten duten gehienek nahiago dutela sagarra "gordinik" saltzea, "mahaiko sagar bezala" erabiltzeko, sagardotarako baino, "diru gehixeago hartzen delako mahaiko sagar bezala salduta". Hori da Agirrek Iruretxiki baserriaren lurretan dituen sagarren kasua ere. Ehun sagarrondo ditu Agirrek, "patroi frankoak; sagar arbola handiak egingo direla esan nahi du horrek". Mahaiko sagar moduan saltzeko, sagardotarako ez bezala, aleak banan-banan eta kontu handiz bildu behar izaten dituzte zuhaitzetik; sagarrak "garbi egon behar du, ukiturik gabe".

Ezaugarri horiek betetzen ez dituztenak etxerako hartzen dituzte, "sagardoa, menbrilloa edota konpotak egiteko", edo sagardotegiei saltzen dizkiete.

Errezil sagarra aztertzeko eta indartzeko sortu zuten elkarte orain dela hiru bat urte Errezilen. Agirrerren esanetan, "poliki, baina pauso politikak ematen" ari dira. Bertako sagarraren ekoizpena gorabidean da Errezilen, eta datozen urteetan ere horrela izango dela uste du Iruretxikikoak. Ekoizpen hori bideratzea eta Errezil sagarraren zabalkundea egitea ere badira elkarrearen erronkak, Ibarbi sagarraren izenarekin saldu baina Ibarbi ez diren sagarrak bereiztea bezala.



ANER PERITZEK LAZKAO TXIKI BERTSOPAPER LEHIAKETA IRABAZI DU, GAZTEEN MAILAN



Lotutakoak

ETIKETAK

ATALAK

EGILEAK



Herritarrek egindako banderatoekin apaindu ...
Nork: [Mailo Oiarzabal](#) - Ira 13, 2017
■ Aisia



Iñigo Garcia: "Emozionatzen nauena ..."
Nork: [Juan Luis Romatet](#) - Ira 13, 2017
■ Kultura



Igor Zubeldia: "Reala da nire bizi ..."
Nork: [Ihintza Elustondo](#) - Ira 13, 2017
■ Azkoitia



Gorka Aranberri: "Liburu batean ida ..."
Nork: [zarauzkohitza.eus](#) [Aktualitatea](#) - Ira 12, 2017
■ Kirola

IKUSIENAK

AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK



Aner Peritzek Lazkao Txiki Bertsopaper L ...
Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Ira 13, 2017

Ez dago iruzkinik

UTZI IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

POST COMMENT



Azkoitia



Herritarrek egindako
banderatzoeekin apaind ...

Nork: [Mailo Oiarzabal](#) - Ira 13, 2017

Aisia



Iñigo Garcia: "Emozionatzen
nauena ...

Nork: [Juan Luis Romatet](#) - Ira 13, 2017

Kultura

© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Posta Elektronikoa: urolakosta@hitza.eus Perez Arregi plaza 1 behe, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358



Gipuzkoako Foru Aldundia



[Urola Kostako Hitza](#)

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)